

herrera

Kirol zaletasunari tinko eutsiz

Aterpe, Herrerako Jubilatuen Etxeak 1994. urtean 80 urte bete zituzten aitou-amonien omenaldia antolatu du.

Aurtengoan Josefa Berasategi, Josefa Arruti, Dolores Badiola, Aurelia Garballo, Marcelina Etxeburua, Fermina Illarreta, Gertrudis Lizarazu, Florida Perez, Jacinto Aranburu, Pedro Lekuona, Isidro Lertxundi, Remigio Lopez eta Ramon Gaztelumendi izan dira omenduak.

Aipa daiteke bestalde, lehengo urtean bi gizonezko izan baziren 80 urtera iritsi zirenak, aurtengoan kopurua bikoiztu egitu dela.



Sari ugari irabazi dute Herrera Kirol Elkarte korrikalariek parte hartu duten hainbat eta hainbat lasterketa.

Mendi-Zaleak mendi taldea, igandean, hilaren 26an, Palomares, Peña Plata eta Urdax, Nafarroako Etxalar aldera joango da otsailerako antolatutako hileko ibilaldiarekin.

Interesa izanez gero, dei ezazue 391174 telefonora.

Axisklo Atsaden taldeak inauteri konpartsa antolatu du astebururako. Urtero osatzen dute hurrekin konpartsa eta aurtengoan fantasmaz jautzita aterako dira karroza eta guzti 40 bat lagun.

Herrerak zuen biztanle kopuruari jaramon gehiegirik egin gabe, duela 47 urte Herrera Kirol Elkarte martxan jarri zen gure auzoan. Garai hartakoek gogoratu dute bezala, elkarte gaur egun Herrera taberna dagoen lokalean zegoen eta bertan biltzen ziren inguruko kirolzaleak inongo helburu ekonomikorik gabe.

1950ean Herrera Kirol Elkarteak, San Luis enparantzan lortutako lokalean jarri zuen bere egoitza eta bertan jarraitzen dute.

Kirolerako dirua behar

Kirol kontua ere zerbait aldatu da harez geroztik, gaur egun ezin baita diru faktorea kontutan hartu gabe inora joan.

Kirol Elkarte zuzendaria, Antxon Seguesek, dioen bezala «*Herrera Kirol Elkarteak baditu zenbait talde: atletismoa, pilota, boloak eta areto futbola. Momentu honetan bolo eta atletismo fitxak ditugu gehien eta azken kirol honetan 24 pertsonen parte hartuko dute hainbat mailatan. Federatzeko fitxa bakoitzak 1.000 duro baino gehiago balio du eta noski, dirua, kontutan hartzekoa da.*

Herrera Kirol Elkarte an parte hartzen duten kirolari guztien alalegina azpimarratzekoa da, zaletasunak bultzatuta guztia musutruk eginaz.

Beterano onenak gureak

Batez ere korrikalari beteranoak ditu elkarteak

eta lan gogorra egin zuten aurreko denboraldian. Gaur egun Herrera Kirol Elkarteak Euskadi mailako talde beterano hobere-na biltzen duela esan daiteke. Besteak beste Rogelio Lopez, 60 urte baino gehiagokoa mailakoa edo Julio Gonzalez M-45 mailan munduko txapelketan bigarren postua lortu zuena dauzkagu.

Antxon Seguesek penaz ikusten du kirol munduak jasan duen aldaketa «*nire ustez Herrera Kirol Elkarteak oraindik ere badaki herri mailako kirola bultzatzen eta horrek beharko luke izan kirol guztien mania.*

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: XIMON